

ASTIALDIA. Igaz baino eskaintza zabalagoa antolatu dabe aurten Kultura Saileko foru arduradunek

Foru Aldundiak bi mila gazterentzako oporrak prestatu ditu udalekuetan

Udalekuak eta Uda Gaztea 2002 programetan izena emoteko epea apirilaren 8tik 19ra bitartean egongo da zabalik

Iñigo Bilbao

Bizkaiko gazte talde batek aukea izango dau, datorren udan, Iparraldeko eta Nafarroako adin bereko gaztetxoekin oporrek pasetako Azkarate herrian, Nafarroa Beherean. Horixe da Udalekuak 2002 programearen barruan Diputazioak 7 eta 13 urte bitarteko bizkaitarrei eskainiko deuten aukeretakoa bat.

Danetara, bi mila gazte baino gehiagok emongo ditue aurten oporrek Foru Aldundiak zuzenean antolatutako udaleku, akanpada edo bidaietan. Izan

be, foru agintarien asmoa, oporraldi atseginak antolatzeaz ganera, Bizkaiko gaztetxoei kirola egin, Euskal Herria ezagutu, eta beste gazteekin alkartasunezko hartu-emonak euskeraz garatzeko aukerea eskaintzea da.

Horixe nabarmendu eban atzo Ana Madariagak, Kultura Saileko diputauak, Udalekuak eta Uda Gazteak programak aurkezteko egin eban agerraldian. Lehenengo ekimena, aita-tu lez, 7 eta 13 urte bitarteko neska-mutilentzat antolatzen dabe, eta bestea, barriz, 14 eta 17 urte bitartekoentzat. Nagu-

siagoentzat, Gazte Bidaiak antolatuko ditue, baina horreen barri aurrerago emongo dabela aurreratu eban Madariagak berak.

Oporraldiok garagarrian eta abuztuaren lehenengo hamabostaldian izango dira, eta danetara, 1440 gaztetxo izango dira udalekutan eta 620 Uda Gaztea barruko ekimenetan. Orain arte astebete edo bi pasetako aukerea egoan, baina, gaztetxoek eurek eskatuta, hementik aurrera hamar eguneko oporraldiak pasetako aukerea be izango dabe.

Zozketea, notarioa lekuko dala

Apirilaren 8tik 19ra bitartean izango da zabalik izena emoteko epea, eta nortzuk joango diran erabagitzeko, zozketea egingo dabe notarioa lekuko da-

HELBURUAK

Kirola egin, Euskal Herria ezagutu eta besteekin alkartasunezko hartu-emonak garatuko ditue

ORDAINKETEA

Gazteek kostuaren %30 besterik ez dabe pagauko, eta preminan bizi diran etxeetako umeek %1

la, maiatzaren 3an. Igaz, esate baterako, 1.136 neska-mutilek emon eben izena Uda Gaztea programeak eskaintzen zituen 552 plazak beteteko. Erdia baino apur bat gehiago, %52, nes-

kak izan zirala nabarmendu eban Madariagak.

Kostuari jagokonez, gazteek kostuaren %30 besterik ez dabe ordaindu behar izango, eta gizarte soldata edo antzeko laguntasunak jasotzen dituen etxeetako umeek ordainsari sinbolikoa izango dabe, %1.

Horrezaz ganera, elbarrituentzat lekua gordeko dabe zozketan, oporretara joango diran ehun neska-mutikoetatik bost ezintasunen bat daukien gaztetxoak izango dira eta.

Euskereak leku berezia izango dau ekimen biotan: Uda Gaztea ekimenean eskaintzen diran 620 plazen artean 330 euskaldunak izango dira, eta ganerako 290, barriz, elebidunak; Udalekutan, barriz, 4.815 aukeretatik 3.540 euskaraz bizitzeko izango dira, eta 1.275 hizkuntza bietan jarduteko.

Ez hori bakarrik. Uda Gaztea ekimenean, Urduñako aterpetxean, kirol edo kultur ekimeneekin batera, ingelesa ikasteko aukerea izango dabe bertara joango diranek.

ALDUNDIAREN ESKAINTZEA

Oporretan euskeraz bizi izateko aukerea izango dabe gaztetxoek

Diputazioak babestuta, hamar mila bizkaitar gazte izango dabe oporrek pasetako aukerea. Gehienak, agintarien diru laguntasuna jasotzen daben alkarteek antolatutako ekimenetan, baina bi milatik gora izango dira Aldundiaren udalekuetan.



EGUNKARIA

Abentura kirolak egiteko aukerea izango dabe Bizkaiko gaztetxoek Euskal Herriko hainbat txokotan.

UDA GAZTEA

BERTIZ (NAFARROA). Baztango haranean, Bertizko Jaurerriko Parke Naturalaren eta Bidasoa ibaiaren ondoan, pagadiz, gaztainondoak eta hariztiz inguratuta, bertara joango diran gazteek olgetan egingo dabe kirola eta kulturari lotutako ekimenetan: arku jaurtiketea, hidrospeeda, piraguismoa, eskaladea, ti-

rolinea, rafting-a, mendi-ibilaldiak eta mountain bike-a, besteak beste.

BIDARRAI (AÑAMENDI). Iparlaren mendibarranean eta Errobi ibaiaren ertzean dagoen inguru natural horretan abentura kirolak egiteko aukera asko dago: lehenago aitatutakoez ganera, arroiletatik jaitsiko dira gazteak. Lekua kultur ibilbideak egiteko aproposa da.

BIDARRAI (ETXE ZAHARRIA). Bizkaiko gaz-

teek oporretarako gehien estimetan daben lekua da Iparraldeko herri txiki hori, abentura kirolak egiteko eskaintzen dituen aukerengaitik. Horrexegaitik, igaz baino 200 plaza gehiago izango dira aurten.

GUARAKO MENDILERROA (HUESCA). Guarako arroilak troka sakonak eta kareharritzko hatxak dira. Mendilerroak oso orografia berezia dauka, eta horri esker,

gazteek aukerea izango dabe arroiletatik jaitsi, eskaladea egin eta mendi-ibilaldiak edo mountain bike-a egiteko.

URDAIBAI (BIZKAIA). Lehenengoz izango dabe gazteek -arabarrek eta gipuzkoarrek batez be-, Urdaibaiko Natura Erreserban oporrek pasetako aukerea. Natura aztertzeaz ganera, itsasoan kirola egiteko aukerea izango dabe.

URDUÑA (BIZKAIA). Aterpetxean batuko diran gazteek lau ordu egingo ditue egunero ingelesa ikasten. Hortik aurrera, igeri egin edo mendi-ibilaldiak egiteko aukerea izango dabe.

UDALEKUAK

ESKAINTZEA. Euskal Herri osoan izango dabe 7 eta 13 urte bitarteko bizkaitarrek oporrek pasetako aukerea. Araban Barria eta Zuhatzako aterpetxeetan; Bizkaian Gorliz, Zugaztieta, Lauaxeta, Urduña eta Zornotzan; Gipuzkoan Abaltzisketa, Hondarribia, Orrio, Zarautz eta Zestoan; Nafarroan Lizarran eta Oron-tzen; eta Iparraldean, barriz, Azkaraten.

HIZKUNTZEA. Programan hizkuntza eredu bien artean aukeratu ahal izango dabe gazteek: euskerazkoa eta elebiduna. Lehenengoan parte hartzeko gazteak gai izan beharko dira taldekideekin zein monitoreekin euskeraz egiteko. Gurasoek horrela erabagita, euskerea izango da gazteek nahitaez erabili beharko daben hizkuntzea. Bestean, barriz, umeek euskera edo gaztelania erabili ahal izango dabe euren hartu-emonetan.

IZENA EMOTEKO. Oporretan alkarregaz egon gura daben neba-arrebek edo lagunek aukera izango dabe izena be alkarregaz emoteko. Horrela, zozketan euren izenak atara ezker, danak batera joango dira aukeratutako udalekura.